

**“ABOKATU EUSKALDUNAK” BATZORDEKO 2016.**  
**URTEKO TXOSTENA**

2016. urtean zehar hauexek izan dira ekimen azpimagarrienak:

1) Otsailaren 16an Abokatu Euskaldunen Batzordeak, Bazkunaren izenean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak osaturik **“Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa” izeneko egitasmoaren aurkezpenean** parte hartu zuen.

2) Martxoaren 10 eta 11ko **Bizkaiko Abokatutzaren I. Kongresuan lau ikastaro euskaraz** burutu ziren. Kurtso hauen ardura Abokatu Euskaldunen batzordearen esku geratu zen. Ikastaro hauek izan ziren:

- Lan zuzenbidea; iraizpena eta kalte-ordainak.
- Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legea.
- Hegaldi Kanpainen aurkako ohiko auziak.
- Prozedura Kriminalaren Legearen azken erreformak.

3) Maiatzaren 9an geure batzordea **Praktika Jurikorako Eskolako zuzendaria den Ignacio Amilibarrekin** bildu zen eskolan eta abokatutzan sartzeko master unibertsitarioan, zeina Pedro Ibarreche Eskolak eta Deustuko Unibertsitateak batera kudeatzen duten, euskara behar duen lekua eta begirunea eskatuz.

4) Ekainaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saila, Zuzenbidearen Euskal Akademia eta Sabino Arana Fundazioarekin batera, Bizkaiko Abokatu Bazkunak, euskal zuzenbide zibilari buruzko ikerketa batzorde eta abokatu euskaldunak batzordeek bultzatuta, **“Euskal Zuzenbide Zibila”** euskarazko jardunaldia burutu zen.

5) Urritik aurrera geure batzordeak badu **dinamizatzaile-trebatzaile bat** geure lanbidean euskararen erabilera bultzatzeko eta errezteko asmoz, geure Bazkunak

hizkuntza zerbitzua den "Emun" izeneko enpresarekin sinatutako kontratua dela eta. Abokatu Euskaldunen Batzordeak oso balorazioa positiboa egiten du horretaz.

6) Azaroan abian jarri zen **ikastaro tekniko-juridiko bat euskaraz kolegiatu eta elkargoko langile guztiei** zabalik. Kurtsoa azaroaren 10ean martxan jarri zen martxoaren hasieran amaitzeko asmoz. Talde bi osatu ziren eta edukikoak hauexek izan ziren:

- Lehen multzoa: interneten eskuragarri dauden tresnak ezagutu eta horietan trebatzea.

- Bigarren multzoa: txostenak euskaraz sortzeko tresnak ezagutu eta praktikara eramatea.

- Hirugarren multzoa: epaitegietako terminologia ezagutu eta barneraztea.

- laugarren multzoa: ahozko jarduna hobetzeko baliabideak ematea.

7) Hainbat hilabete prestatu ondoren, abenduaren 2an **I. Abokatu Euskaldunen Eguna** burutzea lortu genuen. Goizez, harrera eta ongi etorria egin ondoren, Batzordearen ibilbidea azaldu zen, orain arte egindakoak, hemendik aurrerakoak eta abar. Geroago bi lankide, Endika Garai eta Izarra Begoñak, lan jardunean euskararekin izandako harremana, oztopoak, bultzadak, besteak beste, azaldu zituzten.

Geroago lan talde bi eratu ziren eta, gai desberdinen artean, parte hartzaileei eskatu zitzaien euskaraz lan egiteko zer proposatuko zieten Abokatu Euskaldunen batzordeari zein Bizkaiako Abokatuen Bazkunari. Lan taldeen ondorio interesgarri eta aberasgarriak bildu ostean, Bazkuneko abezbatzak amaiera ezin hobea jarri zion goizeko ekitaldiari. Geroago giro ezin hobean bertso-bazkari bat izan genuen Abando hotelean.

Batzordearen asmoa da urtero, urtero abenduaren lehenengo ostiraletan Abokatu Euskaldunen eguna ospatzea.

- Abenduaren 15ean **afari - kolokio** bat izan genuen **Garbiñe Biurrun magistratuarekin**. Gaia hauxe izan zen, "Demokraziak zein nolako demokrazia".

Bilbon, 2017ko martxoaren 23an.

"Abokatu euskaldunak" Batzordea